



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta  
Ikerketa Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de  
Universidades e Investigación

Adolfo Morais Ezquerrok, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak, 2017ko ekainaren 6ko Hezkuntza sailburuarena, 2017ko bigarren sei hilabetekoan kongresuak eta zientzia-bilerak egiteko laguntzetarako deia egiten duen aginduan, (EHAA 110 zk. ekaina, 12) bere 8. artikuluan ezarri bezala, eta batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, honakoa

E B A T Z I D U

Lehenengoa.- Kongresuak eta zientzia-bilerak egiteko laguntzak ematea, guztira 198.943 euro. Onuradun bakoitzari emandako diru-laguntza honekin batera doan emandakoen zerrendan jasota adieraztea.

Bigarrena.- Kongresuak eta zientzia-bilerak egiteko adierazitako laguntzak ukatzea erakunde onuradunei honekin batera doan ukatutakoen zerrendaren bidez.

Hirugarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko irailaren 4an

ADOLFO MORAIS EZQUERRO  
UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUORDEA